

SAGARDO BERRIAREN EGUNA. Abraham Olano txirrindulari ohiaren zurrutadarekin hasi da sagardotegi garai berria



HASIERA JENDETSUA. Abraham Olanoren lehen basokada sagardoa (goi-goien) jakin-min handiz jarraitu zuten alzo denek. Egoña eta Lizasoaren bertsoak adi adi entzun zituzten jarraian Olanok berak (behean, ezkerrean). Azkenean, txotxaren jaiaren erreparatzen bukatu zuten gustiek.

Txotx artean zurrut

Aurten, iaz baino sagardo lehorrakoa darie Gipuzkoako upelei txotx sasoiaren hastapenean

Amagialan | ASTIGARRAGA

Prentsaurrekora joan aurretik, taberna batera sartu eta kafesnea eskatzea onena, izotzak gorbiztutako junturak berotzekotan. «Eguerdian duk aurkezpena, bai. Aurreko urtekoaren mailara iristea kostatuko zaiok aurtengo sagardoari, hala ere. Egin duen eguraldiarekin!», Hamaiketakoak bukatu bitartean ari zen berriketan gizon pareak. «Giltzurrunak garbitzeko oso ona omen da sagardoa», zioen harrari eusten zegoen txapeldunak. Tabernaria, denen esanei amen egiten. Hamabiak hamar gutxi. Udaletxera. Inguruetan, hainbat furgoneta. Idatzita dituzten iragarkiek salatzen dute-

nez, sagardogileenak denak. Eraikinerak sartu, eskaileretan gora egin eta mar-marrari jarraitu. Botila sagardo batzuk erreskadari ikusgai, sagardogileen aurtengo uztaren erakusgarri. Herriko alkate Eli Laburu, sagardogileen elkarteak bozeramaile Joxe Anjel Gofik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza diputatu Jon Mikel Murua eta Abraham Olano txirrindulari ohi prentsaurrekoa emateko prest. Inguruan, hamaika sagardogile.

Partzuergoa eta helburuak

Alkateak, apirilaren amaiera arte luzatuko den txotx sasoi berria aurkeztearekin bat, Astigarragak sagardoaren hiriburu

izateko duen bokazioa nabarmendu zuen. Bertan sagardoaren etxe edo museoren bat egiteko aspaldiko asmoari buruz, proiektua zehazten eta finitzen dabilzala aipatu zuen, eta datorren hilabete amaieran aurkeztekoan dauden partzuergo berri bat iragarri. Partzuergo horiek landuko omen du, hain zuzen ere, sagardoari eskaintzeko gunearen gauzatzea.

Gipuzkoako Nekazaritza diputatuak, berriz, aurtengo uztari buruzko datu batzuk eman zituen. Gaineratu zuenez, berak ordezkatzeko duen erakundeak azken 20 urteetan sagastiak indartzeko eta suspertzeko daukan programak martxan jarraitzen du. «Programa horren bi-

tartez, azken denboraldian 9.000 sagar arbola inguru aldatu dira Gipuzkoako sagastietan. Gainera, 30 bat baserriko Alundiairekin diru laguntza jaso dute arbolak aldatu ondorengo hiru urteetako lanarengatik».

Azkenekoa sagar urte on samarra izan dela esan ostean, datozen urteetan ere Gipuzkoako sagastien ekoizpena handitzeko ahaleginetan jarraituko dutela nabarmendu zuen Murua. «Jan hori zaila eta epe luzeak baita». Sagardogileen elkartearekin, unibertsitatearekin eta Jauriaritzarekin elkarlanean sagardoaren kalitatea hobetzeko egiten ari diren lana gogoratu zuen bere jarduna diputatuak.

LEHENGAIA

Erdia-edo bertakoa

Sagarra tonaka. Diputatuak datuen arabera, 13,5 milioi kilo sagar erabili dituzte aurten Gipuzkoako ekoizleek sagardoa egiteko. Horietatik 6 milioi kilo-edo herrialde bertakoak lirateke. Goierrin izan omen da ugariena sagarra. Beterrin, ez hainbeste. Sagardogileen esanetan, bertako 6-7 milioi kilo sagar erabili dituzte. Behar izan dituzten 13,5 milioi kiloak osatzeko, Galiziatik, Britainiatik, Normandiatik... ekarri omen dute sagarra.

Joxe Anjel Gofik hartu zuen hitza ondoren, sagardogileen izenean, eta aurtengoan sagar uztia polita izan dutela esanez hasi zen. «Ez da kilo bakarra ere sobratu. Denak erabili dira sagardoa egiteko». Sagarra nola, sagardoa halezkoa izaten dela eta, aurtengo pixka bat aurreratua etorri dela aipatu zuen Gofik. «Iazkoarekin alderatuta, behintzat, lehorrakoa daude. Azukrea erabat jana dute, eta edaten hasteko puntuan». Katari dagokionez, eta bakoitzak bereari eusten dioten arren, aurtengo sagardoak «nahiko orekatuak» omen dira.

Aurtengo Sagardo Berriaren Egunean lehendabiziko zurrutad hartzeko zen Abraham Olano txirrindulariak, berriz, nahiko sagardoalea dela esan zuen: «Etxean egunero edaten dugu, gustukoa dut eta sagardotegietako giroa ez da edozein jatekietakoa bezalakoa. Hori bizi egin behar da». Udaletxeko ekitaldiari amaiera emanez, eta ohitura denez, Astigarragako alkateak plater bat eman zion Olanori oroigarri gisan.

Olanoren zaletasuna

Udaletxeko plazara irten, eta Bereziartua sagardotegira denak lehendabiziko txotx ofiziala egitera. Txalapartariak, dantzari bat Olanoren ohoretan dantzan eta baso bat zuen eskuan Anoetako txirrindulari ohiak, oroigarri-platera alde batera utzita. Dantzariak amaitu zuenean, Euskal Telebistaren ordu bietako albistegia hasi zain, guztiak, zuzenean konektatu behar zutela eta. ETBko kazetaria erregidore lanetan. Hark eskua jaltzita txotx egin zitekeen. Hiruzpalau minutu haren eskuari begiratzen egon eta gero, azkenean bai. «Hemen dago Astigarragako sagardo berria», esan zuen Olano. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, jarmian, bertso bana bota zuten. Giltzurrunak garbitzeko garaia denentzat.